

2: LURRA, IRETARGIA, IZARRAK, ALDAKUNTZA, LUR-IRUDIAK


Pozik ibiltzen gara gauez iretargiaren argi motelpean, laiño barik eta izarrak kiñuka dirala.

Izar erreik be, eguzkiaren antzera, sutan dagozan pelotak dira, batzuk eguzkia baiño aundiagoak, beste batzuk txikiagoak dirudie urrin (asago) dagozelako, eta arago be ba-dagoz begi utsez ikusi ezin doguzenak eta arago, oraindiño, ikuskin ego ikusgailluakaz ba ikusi ezin leikezenak. Gaiñera ei dagoz euren argia, segunduko 300 000 km egiten dauzan argia, oraindiño bidean etorten, daukenak.

Gu lurrean, eguzkiaren inguruan gabtltzan artean, iretargia gure inguruan dabil eta 28 egunean egiten dau gure inguruko bira osoa.

Amatau zanetik ona iretargiak ez dauko bere argirik, izpillu baten antzera bialtzen dausku motel eguzkiak damotsona.

Eguzkiaren argiak nondik jotzen dauan alako zatia da gure agertzen jakuna, osoa aurretik dagoanean, zatia albotik dagoanean eta ezer be ez zetetik dagoanean



Guri begira jartzen dan illargi-zatia bakarrik ikusten dogu, Eguzkiak argitzen duanean.

Gu bizi garan lur au ez da beti bardiña, aldatu egiten da, baiña oso astiro. Guk aldaketa ori ikusteko eundak urtean bearko gendukez.

Aizea, euria, eta erreketako ura dira aldatzaillerik aundienak. Mendi-gaillurrak biribildu egiten dira. Orregaitik dakigu mendi-gan biribillak dirala zarrenak.

Eta mendi-ganetan kentzen diran zatitxuak zelaietara edo itxasora jausten dira or be aldakuntza egiteko.

Ba-dira lan ori azkarrago egiten daben jazokizunak be, sumendietatik beera datozen “lava” edo ondargoriak.

Lurrean non gagozan jakiteko eta azaltzeko lau alde nagusi daukaguz: Eguzkia urteten dan lekua sortaldea da eta ori aurrean ba’daukagu, atzean sartaldea dago, esku-man egoaldea eta ezkerrean iparraldea.

Baiña zelan jakin gauez eguzkia ikusten ez danean lau aldeak non dagozan?

Begiratu izarretara eta aurkitu artz-eme edo gurdi txikia. Aren arrear daukazu iparreko ardatz-buruko izarra, “polar ártico”. Ori da iparraldea.

Baiña izarrak ikusten ez ba’dira, laiñoak nagusi diralako, ba-dago ipar-orratza edo “brujula” deritxon tramankulu bat. Onen orratzak beti iparra non dagoan esaten dau “iman” baten ipar-alderantza tiratzen dautsolako. Kutxabarruan dagoan orratza iparrean ipinten ba’da, beste izkiak diño alde bakoitza norantza dagoan

Baiña ipar-orratzaren bidez non zagozan edo nora joan bear dozun jakiteko, ingurua ezagutu bear dozu eta orretarako dira lur-irudiak edo mapak.

Lareun urte dira Elkano getariarrak lurra biribilla, pelota baten antzekoa dala, ez dala leuna edo zapala ikasi ebanetik. Artean Atlantik-Itxasoa bildurgarria zan, itxaso ori amaitzen zan lekuan amildegi aundi bat egoalako. Eta lurra amaitu egiten zan.

Baiña gizakiak lortu eben itxasoan beti aurera ta aurrea egin eta urten eben lekura barriro etortea. Orregaitik emon eutson I Karlos erregeak globo bat Elkano’ri idazki onegaz “tu primus me circundedisti”, “zu izan zara lenengoz inguratu nozuna.”

Erreza da lur-irudiak globo baten egitea, baiña globoa erabilteko da txarra, orregaitik egiten dira lur-irudiak ingi baten eta ori lortzeko bideak ba-dagoz. Erabilteko askoz errezagoa da.

Olazar’tar Martin’ek

Urrutia’tar Ander Jaunari

Bilbao’ra

Adiskide eta lankide: Agur

Zoriona, biotzez, artu dozun ardura aundiagatik. Ba-dakit, ziur, zeregin ori ondo beteko dozuna, beste une askotan zure zintzotasuna eta jokabide zuzena ikusi dodazelako. Ba-dauka euskerearen gure giroak zure jokabidearen bearkizuna, eta zu aleginduko zara ondo beteten.

Zoriona barriro eta ezertarako nire laguntza apala bear ba’zendu zure esanetara nago.

Biotzez, Mungia’tik, 2004n. urteko abenduaren 18n, egunean.

Olazar’tar Martin’ek